

ZARAUZKO UDALBATZARRA, AKTA

EGUNA, ORDUA ETA LEKUA:

- Maiatzak 6, asteazkena.
- Entsegua: 9:30-10:00; Udalbatzarra: 10:00-11:00.
- Zarauzko Udaletxea, udalbatzar aretoa.

PARTAIDEAK:

Zarauzko Udala:

- Eider Illarramendi, Zarauzko alkateordea.
- Alizia Osa, ingurumen zinegotzia.
- Jabier Etxaburu, Agenda 21eko zinegotzia.
- Karmele Alberdi, hirigintza zinegotzia.
- Begoña Rodriguez, ingurumen teknikaria.
- Nerea Ollokiegi, Agenda 21eko teknikaria.

Zarauzko ikastetxeak:

- Antoniano Ikastetxea, Iñaki Erostarbe irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- La Salle Ikastetxea, Patxi Pagola irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Lizardi Institutua, Jone Irastorza irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Orokieta Herri Eskola, Silvia Martinez irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Oteitza Lizeoa, Ainhoa Mateos irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Salbatore Mitxelena Ikastola, Josean Elola irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.

ARAZI:

- Eneko Salaberria, Araziko koordinatzailea.

HELBURUAK:

1. Ikasturtean zehar egindako lanaren **aurkezpena** egitea, ikastetxeetako ordezkariak bidalitako argazkien bitartez.
2. Zarauzko ikasleek elikadura jasangarriaren inguruko diagnostikoa egin ondoren, Udal ordezkariari luzatzen dizkieten **proposamenak** aurkeztea, herriaren egoera hobetzeko helburuarekin.
3. Zarauzko ikasleek elikadura jasangarriaren inguruko egoera hobetzeko hartzen dituzten **konpromisoak** aurkeztea.
4. Ikasleen **galderak, zalantzak edo bestelako ekarpenak** bideratzea.

BILERAREN BILAKAERA:

Zarauzko alkateordeak ikasleei ongietorria eman ondoren, bertaraturiko Udal ordezkariak aurkeztu ditu: Alizia Osa, ingurumen zinegotzia, Jabier Etxaburu, Agenda 21eko zinegotzia, Karmele Alberdi, merkataritza zinegotzia, Begoña Rodriguez, ingurumen teknikaria eta Nerea Ollokiegi, Agenda 21eko teknikaria.

Jarraian, Eskolako Agenda 21 programa aurkezteaz gaiz, Zarauzko ikasleek ikasturtean zehar egindako lana islatzen duen dokumentua proiektatu da, ikastetxearen barne zein kanpoaldean burututako ekintzak azaldu direlarik. Behin udalbatzarraren sarrera eginda, proposamenak aurkeztari ekin zaio.

ELIKADURA JASANGARRIAREN INGURUKO PROPOSAMENAK ETA UDALAK EMANDAKO ERANTZUNAK:

Hemengo arrantzaleak eta nekazariak baloratzeko, hemengo produktuak kontsumitzea. Horrela, dieta osasungarriagoa edukiko genuke baino, gainera, hemengo jendeari lanpostuak emango genioke. Eta aparte, azokara gehiago etortzea eta toki gehiago egotea.

Udalaren erantzuna: Hemengo nekazariak baloratzea oso ondo ikusten dugu. Gure baserriarrak egiten duten lana oso garrantzitsua da, ez bakarrik garaian garaiko eta bertako produktuak ematen dizkigutelako, landa lurra zaintzen dutelako ere bai, eta baita gure kulturaren zatia direlako. Horregatik egin dugu liburuxka gure baserriarren testigantzak jasotzeko (bertaraturiko guztien artean banatu dira aleak). Merkatuan ere panelak jarri ditugu gure baserriarrak baloratzeko.

Urteko bi garaietan (udaberrian eta neguan) Zarautz inguruko baserrietara irteerak antolatzea, baratzaren egoera nola aldatzen den ikusteko eta baserrietan egoten diren animaliak ezagutzeko.

Udalaren erantzuna: Orain bi urte egin genituen irteerak Zarauzko 5 baserrietara. Gustura geratu ziren bai ikasleak, baita baserriarrak ere. Berrirori horrelako irteerak prestatzen saiatuko gara.

Supermerkatuetan leku bat egotea baserriko produktuekin, baserriarrek diru gehiago lortzeko. Kontsumo talde bat Zarautzen egotea.

Udalaren erantzuna: Baserriarrek diru gehiago lortzeko zuzenean saltzea komeni zaie. Horretarako azoka postuetan erosi beharko genuke, edo kontsumo taldeen bidez edo online salmenta ere badute (baseritik.com) Zarautzen badaude kontsumo taldeak, adibidez UZTARO (maiatzaren 9an 10. urteurrena ospatuko du Zine Modelon egingo den jaialdian –Pirritx eta Porrotxekin, besteak beste-). Bestetik, udalak supermerkatuak ezin ditu behartu baina herritarrek sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzake eta merkatariekin ere bai.

Bertako arrain gehiago erostea. Lanpostu gehiago sortuko genituzke eta gainera, gutxiago bidaiatuko genuke, eta horrela gutxiago kutsatuko genuke.

Udalaren erantzuna: Orain arte ez dugu horrelakorik aurreikusi Zarautzen arrantzalerik ez ditugulako, baina ikusita duzuen interesa egingo dugu saiakera; hezkuntza sailekoekin landuko dugu.

Jendeak arrainei dagokienez gehiago begiratzen dio prezioari jatorriari baino. Bertako arraina erosteko herrietan informazioa falta da, konturatu daitezten, kanpoko arrainaren kalitatea baxuagoa dela eta hain urrutitik ekarrita kutsadura handia sortzen dela mundu mailan. Kontzientzia berri honekin lortuko litzateke bertako arraina gehiago saltzea eta gure itsasontzi flota mantentzea proposamenetik abiatuz: bertako eta sasoiaren araberako arrainen inguruko informazio kanpaina (arrandegietan kartelak egutegiekin, eskuorriak...).

Udalaren erantzuna: Orain arte ez dugu horrelakorik aurreikusi Zarautzen arrantzalerik ez ditugulako, baina ikusita duzuen interesa egingo dugu saiakera; hezkuntza sailekoekin landuko dugu.

Arrantzaleen lana gertutik ezagutzeko (arrantzarako teknikak eta abar) bisitak antolatzea.

Udalaren erantzuna: Orain arte ez dugu horrelakorik aurreikusi Zarautzen arrantzalerik ez ditugulako, baina ikusita duzuen interesa egingo dugu saiakera; hezkuntza sailekoekin landuko dugu.

Heldu gabe dauden produktuak ez saltzea, eta enpresei neurriak aplikatzea (arrain txikiak ez arrantzatzea espezie hori desagertzeko zorian egongo litzatekeelako, hau da, ugaltzeko denbora eduki behar dute) proposamenetik abiatuz: heldu gabe dauden produktuak saltzearen ondorio kaltegarriak jakinarazteko informazioaren dibulgazioa (populazioen murrizketa –antxoia duela urte batzuk, esate baterako-)...

Udalaren erantzuna: Udalak ezin du saltzaileengan gehiegi eragin baina errealitatearen inguruko informazioa jaso dezake. Gainera, klima-aldaketak itsasoko espezieetan duen eragina ez dugu ahaztu

behar.

Informazio kanpainak antolatzea sasoi bakoitzeko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ezagutarazteko eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobetoak direla jakiteko proposamenetik abiatuz: informazio kanpainaren aukera ezberdinak planteatuko dira (egutegiak garaian garaiko produktuekin...).

Udalaren erantzuna: Egin izan ditugu hitzaldiak "haurtzaroa eta elikadura", "kirola eta elikadura" "agroekologia" eta abar. Beti geratzen da argi eta garbi elikadurak duen garrantzia, garaian garaikoa eta bertatik bertara kontsumitzeko beharra... Jarraituko dugu horrelako hitzaldiak zabaltzen. Eta azokak ere egiten ditugu, baserritarren azoka, Biolur elkartearen azoka, eta abar.

Dendek produktu ekologikoen eskaera handitu dezatela, eskaera hau herriko baratzak dituztenei luzatuz. Honela, bertako produktuak bultzatzeaz gain, baserritarrek produktu ekologikoak ekoiztea ere bultzatuko litzateke. Bestalde herritarrek ere bultzatu ditzake baratz ekologiko berri gehiago sortzeko proposamenetik abiatuz: herritarrentzako baratz eskaintza handitzea...

Udalaren erantzuna: Zarautzen badago produktu ekologikoak saltzen dituen denda, baita astean behin azokan postua. Hurbildu zaitezke eta bertan egin erosketak.

Udalak baratzak banatzeari buruz, adierazi nahi dugu gaur egun 150 baratz inguru daudela banatuak herritarren artean eta bertan ekologikoa egin behar dute, eta ari dira pixkana ikasten nola landu baratzea era ekologikoan, produktu kimikorik erabili gabe. Ohartzen ari dira etxerako lantzen dituzten barazki horiek osasungarriak izan behar dutela.

Proposamenak erantzun ondoren, entzule gisa etorri diren ikasle eta irakasleei galderak edo bestelako ekarpenak egiteko aukera luzatu zaie.

Agenda 21eko zinegotziak ikasleei egindako lanagatik eskerrak eta zorionak eman dizkie, baita irakasleei, Araziri eta udaleko langileei ere, azken 4 urteotan elkarlanean ibiltzea plazerra izan dela gaineratuz.

Azkenik, alkateordeak, Ikasleen parte-hartzea eskertuz, udalbatzarrari amaiera eman eta prestaturiko hamaiketako ekologikoa hartzeko gonbitea luzatu du.

Udalbatzarreko hainbat irudi:

